

**Gipuzkoako kirol-hastapeneko eredia
aztertze eta baloratzeko Ponentzia.**

Gipuzkoako kirol-hastapenaren ereduari buruzko ponentziaren ondorioen txostena

I. Gipuzkoako eskola-kirola: sarrera eta testuingurua

- A.** Ponentziaren xedea: multikirolaren egoera aztertzea
- B.** Gipuzkoako eredia: aurrekariak eta filosofia

II. Eskola-kirolaren ereduaren egungo erronkak eta arazoak

- A.** Espezializazio goiztiarra eta lehiaketa
- B.** Begiraleen eta entrenatzaileen prestakuntza eta kualifikazioa
- C.** Eragileen inplikazioa eta koordinazioa
- D.** Finantzaketa eta sarbide unibertsala
- E.** Aukeratzeko askatasunerako eskubideari buruz

III. Eskola-kirolaren eredu berriturako proposamenak eta estrategiak

- A.** Eragileen arteko integrazioa eta lankidetzeta
- B.** Kirol aniztasunaren eta dibertsifikazioaren sustapena
- C.** Prestakuntza eta profesionalizazioa
- D.** Lehiakortasun goiztiarra murriztea eta arreta gozamenean jartzea
- E.** Lege-esparrua eta adingabearen eskubideak
- F.** Komunikazioa eta kontzientziakzioa

IV. Ondorioak eta etorkizuneko ikuspegia

I. Gipuzkoako eskola-kirola: sarrera eta testuingurua

A. Ponentziaren xedea: multikirolaren egoera aztertzea

Txostenaren ardatza da Gipuzkoako eskola-kirolean multikirolak (edo kirol aniztasunak) gaur egun duen egoera sakon aztertzea, oinarriak, erronkak eta jarraitu beharreko bideak aztertuz.

Ponentziaren helburu nagusia da eskola-adineko jarduera fisikorako eta kirolerako eredu egokienari buruz hausnartzea, haurra erabaki guztien erdigunea izanik. Kirol-jarduera benetan positiboa izan dadin eta adingabeen ongizate integrala lortzen lagun dezan bermatu nahi da.

2025eko martxoan, Gipuzkoako Batzar Nagusietako Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Batzordean erabaki zen lurraldeko kirol-hastapenaren ereduaz aztertzeko eta baloratzeko ponentzia bat sortzea. Ekimen politiko horrek gizarte- eta hezkuntza-testuinguru bati erantzuten zion, non gero eta tentsio handiagoak baitzeuden eskola-adineko jarduera fisikoaren eta kirolaren inguruan, bai araudia eguneratzeko eskakizunengatik, bai egungo jardunbideak ekitatearen, aniztasunaren eta haurren babesaren ikuspegitik berrikusteko beharragatik.

Ponentzia hori bultzatu zuten arrazoiaren artean, garrantzi erabakigarria izan zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak eman berri zuen epaiak. Epai horren arabera, adingabe bat ezin da behartu multikirola programa egitera, berak aukeratutako klubaren kirol-eskolan parte hartzeko baldintza gisa. Ebazpen juridiko horrek eztabaida publiko garrantzitsu bat ireki zuen egungo araudiaren mugei buruz eta gizarte gisa eraiki nahi dugun eskola-kirolaren ereduari buruz. Horrekin batera, eragina izan zuten kirol-klubak, ikastetxeak eta administrazio publikoen artean zeuden tentsioek ere, bai eta haurren interes gorena bermatzeko eta egungo gizarte- eta kultura-erlaketari erantzuteko kezkek ere.

2025eko apiriletik ekainera bitartean, ponentziaren partaidetza-prozesua garatu zen, eta eskola-kirolarekin lotutako hainbat arlotako 25 eragileren agerraldiak izan genituen: kirol-federazioak, unibertsitateak, udal-erakundeak, herritarren plataformak, kirol-klubak, aholkularitza-enpresa espezializatuak, bai eta Arartekoaren eta erakunde publikoen ordezkariak ere, hala nola Eusko Jaurlaritzakoak. Agerraldiek mosaiko zabal bat eskaini zuten kirol-hastapenaren Gipuzkoako ereduari buruz, funtsezko hainbat puntutan bat egiten zuten ahotsekin, eta kritikak, proposamen alternatiboak eta egiturazko eraldaketarako eskaerak adierazten zituzten beste batzuekin.

Hona hemen agerraldiak egin zituzten hizlarien eta erakundeen zerrenda:

Zk.	Hizlariaren izena	Entitatea/Erakundea
1	Xabier Castaño	Gipuzkoako Errugbi Federazioa
2	Eduardo González	Kirol Management
3	Imanol Arcelus	Kirola Bai plataforma
4	Gurutze Fernández	MK Donostia
5	Araitz Rodríguez	Farapi
6	Asier Bueno	Futbol Teknika
7	Arrate Ramírez	Partikularra
8	Uxue Fernández	EHU
9	Luki Iriarte	Real Sociedad
10	Dan Lertxundi	Aholkulari independentea
11	Iratxe Lasa	Markina-Xemeingo Udala
12	Kepa Díez	La Salle
13	Luis Sautu	Euskal Saskibaloï Federazioa
14	Juan Aldaz	EHU
15	Kike Mokoroa	Ordiziako Udala
16	Nagore Martínez, Oidui Usabiaga, Javier Yanci	EHU
17	Eukene Arana	ZAIN aholkularitza

18	Jon Txakartegi	Gipuzkoako Saskibaloia Federazioa
19	Jon Sarasua, Iñaki Arruti	Euskaltzaindia
20	Manu Díaz	Gipuzkoako Futbol Federazioa
21	Endika Muruamendiaraz	Leintz Eskola Kirola - Athlon
22	Roberto Moreno	Arartekoa
23	Aitor Uriondo	Eusko Jaurlaritza
24	Lorea Arakistain, Irati Ayerza	ERAIN elkarte (ez ziren agertu)
25	Gorka Iturriaga	Eusko Jaurlaritza

B. Gipuzkoako eredu: aurrekariak eta filosofia

Gipuzkoan, kirol-hastapeneko egungo sistema 90eko hamarkadaren hasieran ezarri zen, duela 30 urte baino gehiago, trantsizioko eta erakunde-eraikuntzako aldi batean. Eredu horren arabera, multikirolaren bidez ulertu behar da haurren hazkunde integral eta osasungarria, izaera unibertsalarekin. Ereduak hainbat kirol probatzeko aukera eman nahi izan zien haurrei, psikomotrizitatea handituz, gorputz-ulermena areagotuz eta kirol desberdinak ezagutzuz.

Gipuzkoa ezaguna da bere ikuspegi proaktiboagatik, ebidentzia zientifikoan oinarrituta, eta beste eskualde eta herrialde batzuetarako eredu izan da hurrengan kirola sustatzeko.

Gipuzkoako eskola-kirolaren eredu arautzen duten printzipioak, zeintzuen inguruan bat etorri baitira hizlari gehienak, honako hauek dira:

- Hezkuntza-izaera: eskola-kirolak trebatu eta garatzeko gaitu behar ditu haurrak. Helburu nagusia da haurrak kirolaren bidez osoki heztea, lankidetzaz, erresilientzia, autodiziplina eta autoestimua bezalako balioak sustatuz. "Alfabetizazio fisiko edo motorra" bilatzen da, funtsezkoa dena bizitza aktibo eta osasungarri baterako, orain eta, batez ere, etorkizuneari.

- Inklusioa eta ekitatea: ereduak "gorputz eta poltsiko guztietarako" irisgarria izan behar du, haur guztien parte hartzea bermatuz, haien jatorria, gaitasun fisikoa edo egoera ekonomikoa edozein dela ere. Aktiboki lan egiten da dibertsitate funtzionala duten pertsonen inklusioa bermatzeko eta genero-arrakalak murrizteko.
- Kirol aniztasuna: funtsezkoa da askotariko kirolen praktika sustatzea, modalitate desberdinak ezagutzeko. Ikuspegi hori onuragarria da garapen motorrerako, emozionalerako eta haurrek etorkizunean zer kirolean espezializatu nahi duten aukeratu ahal izateko.

Funtsean, agerraldietan parte hartu zutenak bat datoz: eskola-adineko jarduera fisikoaren eta kirolaren eredu propio bat diseinatu eta finkatu behar da. Eredu horrek lankidetzaren, kultura-aniztasunaren eta gizarte-kohesioaren balioetan oinarrituta egon beharko luke. Eragile instituzional eta komunitarioak bat etorri ziren, konponbide homogeneoetatik urrun, neurrira egindako eredu bat eraikitzeke ideiaren inguruan.

Eredu propio bat eraikitzeke, lurraldean lehendik dauden esperientzien aberastasuna aitortu behar da, eta eskualdeei eta udalerriei tresnak eman behar zaizkie sistema beren errealitatera egokitzeko. Gipuzkoako ereduak, ekarpen horien arabera, ez da dokumentu itxi bat, baizik eta eraikitzen ari den prozesu bat, kirol- eta hezkuntza-ekosistemako eragile guztiak barne hartu behar dituen.

II. Eskola-kirolaren egungo ereduaren erronkak

A. Espezializazio goiztiarra eta lehiaketa

Agerraldietatik sortutako adostasun nagusietako bat da haurrak sistemaren erdigunean jarri behar direla¹. Gorputz- eta kirol-jarduerak garapen integralerako tresna gisa ulertu behar dira: garapen fisikoa, emozionala, soziala eta kognitiboa. Ikuspegi nagusia da eskola-adineko jarduera fisikoak eta kirolak ez duela egon behar errendimendu edo lehiakortasun goiztiarraren logiken baldintzapean, gozamenara, inklusiora, autonomiara eta ikaskuntzara bideratuta baizik.

Adingabea ardatz duen orientazio horrek, halaber, espezializazioa edo emaitzak lehenesten dituzten egungo ereduakiko begirada kritikoa inplikatzeko du. Eragile askok beharrezkotzat jo zuten egun dauden egiturak berrikustea, ekitate-, partaidetza- eta ongizate-printzipioei modu koherenteagoan erantzuteko². Adingabea erdigunean jartzearena hezkuntza-helburu gisa ez ezik, sistemaren erabaki guztiak gidatu behar dituen irizpide etiko gisa ere proposatu zen.

Ildo beretik, jarduera fisikoa eta kirola ikasleen hezkuntza-prozesu integralaren zatitzat hartzeko beharra identifikatu zen. Aitorpen horrek aukera emango luke gorputz- eta kirol-jarduera hezkuntza-sistemaren helburu pedagogikoekin artikulatzeko, ikastetxeen eta kirol-eragileen arteko lankidetzara sustatzeko eta sistemari zilegitasun instituzional handiagoa emateko.

Hizlariak azpimarratu zuten lotura horrek ez dakarrela kirola "eskolatzea", haren hezkuntza-funtzioa indartzea baizik³. Jarduera fisikoa eta kirola eskolaz kanpoko jarduera hautazko edo subsidiariorat hartzeari utzi behar zaiola defendatu zen, eta ikasleen bizi-curriculumean sartu behar dela, osasunari, balioei eta garapen pertsonalari dagokienez.

Arriskuak eta kalteak

Ahobatezko adostasuna egon zen espezializazio goiztiarrak hastapen-eredu gisa dituen arriskuei eta kalteei buruz. Besteak beste, honako hauek azpimarratu ziren: lesio fisikoak eta osasun mentaleko arazoak; kirola uztea; adingabearen garapen integralaren garrantzia; eta errendimenduaren mitoa ezeztatzea.

¹Ildo horretan, ikus honako hauen agerraldiak: Aitor Uriondo; Nagore Martínez; Uxue Fernández; Endika Murumendiaraz; Aritz Rodríguez; eta Kepa Diez.

²Ildo horretan, ikus honako hauen agerraldiak: Aitor Uriondo; Uxue Fernández; eta Eukene Arana.

³Ildo horretan, ikus honako hauen agerraldiak: Aitor Uriondo; Nagore Martínez; Manu Díaz.

*Presioa eta merkantilizazioa*⁴

Lehenik eta behin, emaitza goiztiarrak lortzeagatik presioak, familien eta entrenatzaileen anbizioak bultzatuta, kirolaren hezkuntza-zentzua desitxuratzen du. Arrakasta goiztiarra bilatze horrek antsietatea, huts egiteari beldurra eta frustrazioa eragiten ditu haurren, eta alde batera uzten ditu gozamina, inklusioa eta garapen pertsonala.

Bigarrenik, haurren kirola merkantilizatzeak “lehengai” bihurtzen ditu adingabeak, beren ongizatearen gainetik errentagarritasuna eta errendimendua lehenesten dituen sistema baten barruan. Zortzi urte dituztenetik fitxatu ahal izatea edo entrenamendu-saioak neurrigabe ugaritzea bezalako praktikak esplotazio goiztiarra dira.

Hirugarrenik, adingabearen gaineko inpaktua sakona da: presioak, jazarpenak eta zentzu ludikoa galtzeak kirola sufrimendu-iturri bihur dezakete. Muga etikoak eta haurren interes gorena babestuko duten politika publikoak ezartzeko beharra azpimarratzen da.

Egungo mugak eta murrizketak

Arlo honetan, desadostasun-puntuak hauteman ziren, espezializazio goiztiarra prebenitzeko gehiegizko erregulazioagatik.

Lehenik, entrenamendu-kopuruarekin eta zonakatzearekin lotutako murrizketak daude, gehiegizkotzat eta ez oso errealistatzat jotzen direnak. Benjamin eta alebin kategorietarako, entrenamendu-kopurua asteko saio batera mugatuta dago, eta kopuru hori ez da nahikotzat jotzen. Gipuzkoako lurraldetik kanpo lehiatzeko debekuak, bestalde, frustrazioa eragiten du diziplina batzuetan, Gipuzkoan lehiatu ahal izateko talde gutxi daudelako; horrez gain, kostu gehigarriak eta arazo logistikoak eragiten ditu, batez ere eremu mugakideetan.

Bigarrenik, «errendimenduko» eta «partaidetzako» taldeen arteko desberdintasunak ereduaren ekitate-printzipioen aurkako hierarkia bat erreproduzitzen du, entrenamendu-kopuru gehiago ahalbidetzen baitizkie batzuei besteei baino, eta kanpoan geratzen direnak desmotibatzen ditu.

B. Begiraleen eta entrenatzaileen prestakuntza eta kualifikazioa

Aurreko gaiarekin zuzenean lotuta, ahots askok eskola-adineko jarduera fisikoa eta kirola hezkuntza-sistemaren hedapen gisa ulertu behar dela defendatu zuten, eta beste batzuek, berriz, kontziliaziorako eta eskola-orduetatik kanpo jarduera fisikoa sustatzeko zerbitzu gisa⁵.

⁴Ildo horretan, ikus honako hauen agerraldiak: Juan Aldaz; Nagore Martinez; Roberto Moreno; eta Araitx Rodriguez.

⁵Ildo horretan, ikus honako hauen agerraldiak: Xabier Castaño; Kepa Diez; eta Dan Lertxundi.

Desadostasun horrek alderdi oso zehatzei eragiten die, hala nola finantzaketari, begiraleen prestakuntzari edo irakasleen zereginari. Hezkuntza-sisteman erabat integratzen bada, inplikaturako eragileen prestakuntza- eta pedagogia-eskakizunak areagotu egin behar dira.

Aitzitik, jarduera fisikoa sustatzeko zerbitzu osagarritzat jotzen dutenek argudiatzen dute ez dela erakundeen esku-hartze maila bera eskatu behar, eta malgutasun handiagoa izan behar duela bai eskaintzan bai eta kudeaketan ere.

Bestalde, hizlari batzuek funtsezkotzat jo zuten hezkuntza-kalitatea hobetzeko, eta beste batzuek, berriz, inplikazio ekonomiko eta praktikoei buruz ohartarazi zuten⁶.

Kirol-arloko lanbideei buruzko 8/2022 Legea erreferentzia-esparru gisa aipatu zen, baina baita ere esan zen zailtasunak ekar ditzakeela udalerrri txikientzat edo eskola-kirolaren izaera irisgarriari eusteko.

Hala, eztabaida teknikoa ez ezik, politikoa eta ekonomikoa ere izan zen, kalitatearen, sarbide unibertsalaren eta sistemaren jasangarritasunaren arteko orekaren inguruan kezkatuta.

C. Eragileen inplikazioa eta koordinazioa

Hizlari batzuek defendatu zuten eredu bateratuak edo eskualdekoak behar direla, koherentzia eta kalitatea bermatuko dutenak; beste batzuek, berriz, formula deszentralizatuagoen alde egin zuten, tokiko berezitasunetara egokitutako ereduaren alde, alegia⁷.

Eztabaida horrek berekin dakar egiturak sortzea edo indartzea, hala nola tokiko mahaiak, erakunde kudeatzaileak edo klubak, ikastetxeen eta administrazioen arteko hitzarmenak. Esperientziak askotarikoak dira eta errealitate oso desberdinak islatzen dituzte eskualde batetik bestera.

Eredu zentralizatuen aurrean, toki-autonomia errespetatzen duten egitura malguak defendatu ziren, eta horrek zalantzak sortzen ditu lurralde osoan ekitatea eta kalitatea bermatzeko moduari buruz. Hala, agerraldietan ikusi ahal izan zen udalerrri txikiak eta landa-eremuak egiturazko muga larriak dituztela eskola-adineko jarduera fisikorako eta kirolerako sarbideari dagokionez, eta agerian geratu zen adostasun bat dagoela ereduaren lurralde-ikuspegi batetik birpentsatzeko behararen inguruan.

Landa-eremuak eta udalerrri txikiak ezin dira ikusezin bihurtu, eta ezin dira salbuespen gisa tratatu, ezaugarri propioak dituzten errealitate gisa baizik, eta lehentasunezko tokia izan behar dute sistema birdiseinatzearen garaian. Arreta instituzionala, diseinu malgua eta baliabide espezifikoak eskatu ziren, hurrek kirola egiteko sarbide ekitatiboa izan dezaten bermatzeko, bizilekua edozein dela ere.

⁶Ildo horretan, ikus honako hauen agerraldiak: Asier Bueno; Manu Días; eta Aritz Rodríguez.

⁷Ildo horretan, ikus honako hauen agerraldiak: Endika Muruamendiaraz; Eduardo González; Aitor Nemesio Uriondo.

Hiru ideia hauek nabarmendu ziren:

- Kirol-sarbidean eta -eskaintzan dagoen egiturazko desberdintasuna: hizlariak behin eta berriz adierazi zuten udalerrri txikiak eta landa-eremuak desberdintasun-egoeran daudela eskola-adineko jarduera fisiko eta kirol jarduera nagusien eskaintzari dagokionez. Biztanleria-dentsitate txikiak, herrien arteko distantziak eta instalazioen edo langile kualifikatuen eskuragarritasun mugatuak izugarri zailtzen dute programa egonkorak abian jartzea.
- Eskualde-sareen eta udalerrien arteko lankidetzaren balioa: proposatutako irtenbideetako bat izan zen eskualdeko edo udalez gaindiko sareak sustatzea, hainbat udalerriren artean baliabideak partekatzeko (begiraleak, garraioa, kirol-espazioak). Estrategia hori herri txikien eskala-mugak konpentsatzeko eta sarbide unibertsala bermatzeko modu gisa defendatu zen.
- Kirola bertan behera uzteko edo ez parte hartzeko arriskua: landa-inguruneetako haur askok goiz uzten diote kirol-jarduera fisikoa egiteari, eskaintzarik ez dagoelako edo joan-etorrietarako zailtasunak dituztelako. Egoera horrek argi eta garbi urratzen du eskola-kirolaren sisteman oinarri izan behar duen ekitate-printzipioa.

Hizlariak bat etorri ziren esatean beharrezkoa dela erakunde-maila desberdinen arteko ekintza koordinatua, tokiko gaitasunak indartzeko, baliabide egonkorrekin eta eskualde bakoitzeko lurralde-errealitateari erantzuten dioten egokitzapen programatikoekin⁸. Lurralde-ekitateak lehentasuna izan behar du plangintza berrian.

D. Finantzaketa eta sarbide unibertsala

Agerraldietan gehien azaldu zen kezketako bat da sarbide unibertsala bermatu behar dela⁹. Azpimarratu zen haur bakar bat ere ez litzatekeela kirol-jarduera fisikotik kanpo geratu behar arrazoi ekonomikoengatik. Ahots batzuek nabarmendu zuten izen-ematearekin, materialarekin edo joan-etorriekin lotutako kostuak benetako oztopo bihur daitezkeela familia askorentzat, bereziki kalteberatasun-testuinguruetan.

⁸Ildo horretan, ikus honako hauen agerraldiak: Iratxe Lasa; Endika Murumendaraz; Luis Sautu; Kike Mokoroa; Eukene Arana; Araitx Rodriguez.

⁹Ildo horretan, ikus honako hauen agerraldiak: Juan Aldaz; Gurutze Fernández; Araitx Rodriguez; Eukene Arana; Iratxe Lasa; Uxue Fernández; Nagore Martínez; Kepa Diez; Roberto Moreno.

Askotan errepikatu zen beste ardatz bat da hobari- eta doakotasun-mekanismoak edo laguntza espezifikoak antolatzeko beharra, ingurune sozioekonomiko kalteberetako adingabeen parte-hartzea bermatzeko. Azpimarratu zen, neurri horiek hartu ezean, sistemak egiturazko desberdintasunak indartu ditzakeela, horiei aurre egin beharrean.

Gainera, doakotasuna helburu ekonomikotzat ez ezik, ekitate-printzipiotzat ere hartzea proposatu zen. Adierazi zen eskola-kirolean sartzeko berdintasuna hezkuntzarako eta garapen integralerako eskubidearen zati gisa ulertu behar dela, eta ez soilik curriculumetik kanpoko aukerako eskaintza gisa. Ildo horretan, finantzaketa publiko nahikoa defendatu zen eskubide horren bermatzaile gisa.

Hizlarien iritziz, politika publikoak ziurtatu behar du familia baten egoera ekonomikoak ez duela baldintzatu behar seme-alabek eskola-kirolean parte hartu ahal izatea. Horretarako, egiturazko neurriak planteatu ziren, hala nola programa jakin batzuen doakotasuna, dirulaguntzak edo eskola-kirola nahitaezko eta doako hezkuntza-esparruan sartzea.

Batzar Nagusiei eskatzen zaie multikirolaren alde egin dezatela, aurrekontu- eta prestakuntza-baliabideak bideratuz. Nolanahi ere, eztabaida egon da multikirola programak familia guztientzat doakoa izan behar duen ala ez, eta ez dago jarrera irmorik doakotasun unibertsalari dagokionez.

Feminismoak, genero-ikuspegia eta emakumeen parte-hartzea

Ponentziak agerian utzi zuen adostasun zabala dagoela eredu ikuspegi feminista estruktural batetik eraldatzeko premiari dagokionez¹⁰. Ekarpinak ez ziren mugatu kopuru-berdintasunera edo sarbide formalera; aitzitik, sustatzen diren edukiak, rolak, hizkuntza, balioak eta erreferenteak sakon berrikustea planteatu zuten.

Hainbat adituk azpimarratu zuten beharrezkoa dela ikuspegi feminista eta genero-ikuspegia txertatzea. Uxue Fernándezek (EHU) "eskola-kirolaren eredu feminizatze" premia planteatu zuen, kirola sozializatzeko egitura androzentrikoak zalantzan jarriko dituen begirada kritikoa proposatuz. Bere hitzaldian nabarmendu zuen eskola-kirolak ez duela errepikatu behar helduen kirolaren eredu lehiakorra eta baztertzaila, baizik eta arreta berezia jarri behar zaiela neskatoen parte hartzeko moduei, askotan ikusezin bihurtuta edo gutxietsita baitaude.

Ildo beretik, Aritz Rodríguezek, Farapi kooperatibatik, ohartarazi zuen eskola-kirolak egiturazko desberdintasunak erreproduzitzeko joera duela, baldin eta ekitatea sustatzeko neurri espezifikorik hartzen ez bada.

¹⁰Ildo horretan, ikus honako hauen agerraldiak: Aritz Rodríguez; Nagore Martínez; Uxue Fernández; Uxue Fernández; Gurutze Fernández; Kepa Díez.

Generoaz gain, klase soziala, jatorri etnikoa edo dibertsitate funtzionala bezalako faktoreak kontuan hartzen dituen ikuspegi intersektionalaren aldeko apustua egin zuen, eta sexuaren arabera bereizitako datuak eta esku-hartze pertsonalizatuagoak izateko beharra azpimarratu zuen.

Nagore Martínezek, AKTIBATU ikerketa-taldeko (EHU) kideak, adierazi zuen neskato askok sentitzen dutela eskola-kirola ez dagoela haientzat pentsatuta. Adierazi zuen harreman-estiloak, interesak eta talde-dinamikak ez datozela beti bat kirol-jarduera fisikoaren egitura tradizionalekin, eta metodologiak eta jarduerak genero ikuspegi inklusibotik berrikustea eskatu zuen.

Azkenik, Eukene Aranak, ZAIN erakundeko haurrak babesteko aholkulariak, proposatu zuen ekitate-adierazleak eta ebaluazio-sistema espezifikokoak garatzea, eskola-kirolak neskatoen eta mutikoen arteko aukera-berdintasuna benetan sustatzen duen baloratzeko. Ohartarazi zuenez, berdintasun-politika espliziturik gabe, sistemak berak genero-estereotipoak eta -desberdintasunak erreproduzitzeko eragile gisa jardun dezake.

Ekarpenetatik ondorioztatzen da honako hauek azpimarratu zirela:

- Begirale eta lider emakumezkoen falta, neskatoen identifikazioa eragotziz.
- Berdintasunari eta generoari buruzko nahitaezko prestakuntzaren beharra kirol-eragile guztientzat.
- Arrakasta-eredu androzentrikoa zalantzan jartzea (abiadura, indarra, lehiakortasuna).
- Espazio seguruak eta sinbolikoki inklusiboak sortu beharra.

Azken batean, agerraldietan salatu zen sistema, oraindik ere, nagusiki parametro maskulinoetatik (berr)eraikitzen jarraitzen dela, eta berdintasuna ez dela iritsiko hura sustatzen duten egiturak, edukiak eta eragileak berariaz eraldatzen ez badira.

Dibertsitate funtzionala

Hitzaldietatik jaso denez, aniztasun funtzionala beste aniztasun-modu batzuk baino maizago agertu zen ponentzian¹¹. Nahiz eta batzuetan ez zen sakontasun teknikoaz jorratu, hizlariak bat etorri ziren adieraztean egiturazko eraldaketa bat behar dela gaitasun fisiko, sentesorial edo kognitibo desberdinak barruan hartzeko.

Honako behar hauek identifikatu ziren:

¹¹Ildo horretan, ikus honako hauen agerraldiak: Luis Sautu; Eukene Arana; Aritz Rodríguez; Uxue Fernández; Nagore Martínez; Gurutze Fernández.

- Irisgarritasun integrala (espazioak, materialak, dinamikak, hizkuntza).
- Benetako inklusioari buruzko prestakuntza espezifikoa begiraleentzat eta teknikarientzat.
- Lehia-eredua berrikustea, haur-profil askorentzat oztopo baita.
- Dibertsitate funtzionala aktiboki ikusaraztea, ikuspegi positibo batetik.

Laburbilduz, ponentziak aitortu zuen ez dela nahikoa sisteman sartzeko aukera ematea: beharrezkoa da sistema oinarritik eraberritzea, dibertsitate funtzionala duten hurrek modu adierazgarri, duin eta aberasgarrian parte har dezaten.

Adierazi zen begiraleek ez zutela dibertsitate funtzionalari buruzko prestakuntza espezifikorik jasotzen, eta horrek zaildu egiten du adingabe horien premia partikularrei arreta egokia ematea.

Baliabide material eta giza baliabide egokien garrantzia ere nabarmendu zen, laguntza teknikoak, langile espezializatuak eta irisgarritasun unibertsala erraztuko duten egiturak barne.

Agerraldietan, zenbait eragilek adierazi zuten kezkatuta zeudela desgaitasuna duten adingabeen presentzia eta partaidetza eskasagatik. Esan zuten inklusioa ezin dela mugatu familien edo begiraleen borondate indibidualera, baizik eta sistemaren diseinuaren egiturazko parte izan behar duela.

Integrazio sinbolikoaz harago, jarduerak, espazioak eta metodologiak benetan egokitu behar direla azpimarratu zen. Horretarako, konpromiso instituzionala, prestakuntza espezifikoa eta borondate politikoa behar dira, ikasleen profil guztientzako inklusioa eta ekitatiboa izango den kirol-jarduera bermatzeko.

Migratzaileak, atzerritar jatorrikoak eta arrazializatuak

Arlo honetan egindako ekarpenetatik nabarmentzen den ideia da migratzaileek eta atzerritar jatorriko pertsonak eskola-adineko jarduera fisikora eta kirolera sartzeko oztopo espezifikoei aurre egin behar dietela¹². Oztopo horiek faktore ekonomiko, linguistiko, burokratiko eta kulturalekin lotuta daude, eta kolektibo horren parte-hartzea txikia izatea dakarte. Adierazi zen zailtasun horiek ez direla kasualitatezkoak, baizik eta ikasle guztien jatorri eta bizi-ibilbide desberdinak kontuan hartuta diseinatu ez den sistema baten ondorio.

Bigarrenik, sistemak gizarteratzean eta gizarte-kohesioan zeregin aktiboa izan behar duela azpimarratu zen. Sarbidez haratago, espazio seguruak sortzeaz hitz egin zen, diskriminaziorik gabe eta kultura-aniztasuna baloratuko duen pedagogiarekin.

¹²Ildo horretan, ikus honako hauen agerraldiak: Aritz Rodriguez; Nagore Martinez; Roberto Moreno; Eukene Arana; Gurutze Fernández; Iratxe Lasa.

Kirolak elkarrekiko errespetua, bizikidetzeta eta herritartasun kritikoa sustatzeko tresna gisa duen ahalmena aldarrikatu zen.

Hirugarren ekarpen bat ere partekatu zuten: teknikariak eta hezitzaileak gehiago trebatzeko beharra. Adierazi zen, askotan, diskriminazio- edo bazterketa-egoerak ez direla asmo txarrarengatik gertatzen, baizik eta prestakuntza, tresnak edo kulturarteko sentsibilitatea falta direlako. Begiraleen eta kirol-eragileen prestakuntza-programetan arrazakeriaren aurkako eta aniztasunaren aldeko prestakuntza sartzea proposatu zen.

Azkenik, nabarmendu zen migratzaileen parte-hartzeari buruzko datuak oso mugatuak direla, eta informazio-falta horrek erabaki egokiak hartzea eragozten duela. Jatorriaren, hizkuntzaren eta egoera sozioekonomikoaren arabera bereizitako datuak biltzeko eskatu zen, egiturazko desberdintasunak murriztuko dituzten politikak diseinatu ahal izateko.

Oro har, migratzaileei, atzerritar jatorrikoei eta arrazializatuak buruz esan zirenak bat datoz puntu batean: sistema birformulatu egin behar da, arrazakeriaren aurkako, kulturarteko eta justizia sozialeko ikuspegi batetik. Planteatu zen ekitatea ez dela soilik arau unibertsalen bidez lortzen, baizik eta dauden desberdintasunak aitortzen dituzten eta horiek eskubide-logika batetik murrizteko lan egiten duten politika aktiboak bidez.

Eredu inklusibo eta kulturarteko baterantz aurrera egiteko, ezinbestekoa izango da:

- Gipuzkoan dauden askotariko errealitate kulturalak aitortzea.
- Arrazakeriaren aurkako ikuspegia sartzea eskolako kirol-programetan.
- Haur migratzaileak beren identitateetatik eta testuinguruetatik abiatuta aitortzen eta laguntzen dituzten politikak bermatzea.

E. Aukeratzeko askatasunerako eskubideari buruz

Eskola-kirolari buruzko ponentziaren agerraldietan bi jarrera hauen arteko eztabaida piztu zen: esku-hartze publiko argi baten beharra defendatzen duena eta familien eta haurren aukera-askatasunerako eskubidea defendatzen duena. Eztabaida bereziki esanguratsua izan zen kirol-ibilbideen erregulazioa, kirol federatuarekiko harremana eta eskaintzetarako sarbide ekitatiboa jorrazteko orduan.

Gehiengoak aukeratzeko askatasunaren printzipioa onartzen du, betiere ekitateko, sarbide unibertsaleko eta hezkuntza-bermeko baldintzen mende badago. Ikuspegi horretan, esku-hartze publikoak baldintzak sortu behar ditu aukeratzeko eskubidea errealia izan dadin, eta ez ekonomia-, kultura- edo lurralde-faktoreek mugatutako aukera.

Ohartarazi da askatasunaren diskurtsoa ez dela erabili behar deserregulaziorako, desberdintasunen legitimaziorako eta kirol-jardueraren merkantilizaziorako aitzakia gisa.

Ikuspegi horretatik, baieztatzen da erakunde publikoen zeregina ez dela aukerak ezabatzea, baizik eta ikasle guztiek askotariko, doako eta kalitatezko eskaintza bat eskuratu ahal izatea bermatzea, familien eros-ahalmenaren edo kanpoko egituren presioaren mende egon gabe.

Hizlari gutxi batzuk azpimarratzen dute nolabaiteko autonomiari eutsi behar zaiola familiek beren seme-alaben interes edo premietara hobekien egokitzen den kirol-ibilbidea aukeratu ahal izateko. Jarrera hori ez dago esku-hartze publikoaren aurka, baina tokiko malgutasuna edo aniztasuna beharrik gabe mugatzen duten ikuspegi zurrinak saihesteko eskatzen du. Azpimarratzen da arlo publikoaren papera gehiago izan behar dela laguntzekoa eta bermatzekoa, inposatzekoa baino.

Ponentziaren gehiengoaren jarrera ez dago aukeratzeko askatasunaren aurka, baina askatasun hori justizia sozialaren, ekitatearen eta berme publikoaren logikaren mende jartzen du. Askatasunaz hitz egitea, irisgarritasun unibertsalik gabe, desberdintasuna betiketzea dela uste da. Beraz, benetako ekitate-baldintzetan aukeratzeko ahalbidetuko duen esku-hartze instituzionala defendatzen da, askatasunaren edo merezimenduaren diskurtsoek ez ditzaten legitimizatu eskola-kirolaren ezkutuko pribatizazio-, elitismo- eta bazterketa-dinamikak.

III. Eskola-kirolaren eredu berriturako proposamenak eta estrategiak

A. Eragileen arteko integrazioa eta lankidetzak

- Tokiko koordinazio-mahaiak eratzea ikastetxeen, klubien, udalen, federazioen eta guraso-elkarteen artean, eskola-kiroleko urteko baterako planak egiteko.
- Lankidetzak-hitzarmenak formalizatzea klubien, ikastetxeen eta tokiko erakundeen artean, kirol-irakaskuntza integratzeko, osagarritasuna bermatuz (adibidez, tresna digitalak sortzea saioen programazioekin).
- Tokiko kudeaketa-egiturak sortzea (elkarte edo erakunde mistoak), herri bateko ikastetxe guztiak biltzeko eta kirol-eskaintza koordinatzeko ekonomia- eta antolaketa-esparru beraren pean.
- Landa-eremuetan eskualdeko lankidetzak-sareak bultzatzea, begiraleak, garraioa eta instalazioak partekatzeko, lurralde-ekitatea bermatuz.
- Baterako jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoak ezartzea, parte-hartzearen, ekitatearen eta hezkuntza-kalitatearen adierazle komunekin.

B. Kirol aniztasuna eta dibertsifikazioa sustatzea

- Multikirolaren filosofia mantentzea eta indartzea hastapeneko oinarrizko eredu gisa, kirol-eskaintza dibertsifikatzeko, inklusioa eta alfabetatze motorra sustatzen dituzten diziplina minoritarioak, alternatiboak eta adierazpen-jarduerak barne hartuta (dantza, akrobaziak, orientazioa, etab.).
- Asteko saioetan ordutegi-malgutasuna bermatzea, kirol desberdinak egin ahal izateko, ordutegiak gainjarri gabe, eta Multikirolaren adinetan irizpide berarekin irakaskuntza- eta lehiaketa-saioen kopuruari dagokionez.
- Lehiaketa hezigarriak eta ez-selektiboak diseinatzea, emaitzaren gaintik parte-hartzea eta balioen garapena lehenetsiz.
- Kirol-erakundeei pizgarriak ematea, beren kirolariek kirol-hastapeneko programetan parte hartzen dutela bermatzen badute, bai eta emakumeen eta ordezkariak txikia duten kolektiboen parte-hartzea handitzen badute.
- Familia-kontziliazioa erraztea, egutegian malgutasun handiagoz jokatzeko eta topaketak egiteko aukera gehiago emanez, zubiak eta jaiegunak aprobetxatuz, asteburuetak saturazioa saihesteko.

C. Prestakuntza eta profesionalizazioa

- Urteko nahitaezko prestakuntza-plan bat ezartzea begiraleentzat, ikuspegi pedagogiko eta inklusiboarekin, haurren babesa ere jorratuz.
- Baterako prestakuntza-ibilbideak garatzea federazioen eta Aldundiaren artean, didaktika, kudeaketa emozionala, euskara, berdintasuna eta aniztasuna lantzeko moduluekin (adibidez, tresna digitalak sortzea saioen programazioarekin).
- Toki-eremuan begirale gazteak eta laguntzaileak kualifikatzeko dirulaguntza espezifikoak bultzatzea.
- Koordinazio pedagogikoko figura bat sortzea ikastetxe edo tokiko egitura bakoitzean, teknikariak gainbegiratu, lagundu eta prestatzeko.
- Prestakuntzaren kalitatea eta eragina urtero ikuskatzea, zeharkako gaitasunak benetan aplikatzen direla bermatuz.

D. Lehiakortasun goiztiarra murriztea eta arreta gozamenean jartzea

- Benjamin eta alebin kategorietako lehiaketa-erregelamenduak berritzea, sailkapen-ligen ordeztu prestakuntza-topaketak edo markatzailerik gabeko jaialdiak jarritz.
- Ongizate- eta gozamen-adierazleak ezartzea, eskola-kirola ebaluatzeko irizpide gisa, parte-hartzearekin eta jarraitutasunarekin batera.
- Familia eta entrenatzaileentzako material pedagogikoak eta gidak garatzea, goizegi ez espezializatzearen eta multikirolaren onurak azalduz.
- Begiraleei kudeaketa emozionalaren eta laguntzaren inguruko prestakuntza ematea, hurrei frustrazioa eta errespetua kudeatzen laguntzeko.

E. Lege-esparrua eta adingabearen eskubideak

- Erakunde bakoitzaren eskumen-esparrua argi eta garbi definitzea. Bideratutako baliabide publikoak handitzea. Gobernantza parte-hartzailea eta egonkorra bermatzea.
- Ereduaren hezkuntza-izaera blindatuko duen erregulazio berri bat bultzatzea.
- Adostasun politiko eta soziala bultzatzea, sistemaren zatiketa gainditzeko.

- Lehiaketarako eskubidea bermatzea, irizpide bakar eta homogeen bat ezarriz kirol modalitateen izaera minoritarioari buruz, lehiaketaren muga geografikoetan malgutasun handiagoa ahalbidetzeko.

F. Komunikazioa eta kontzientziakzioa

- Eskola-kirolaren balioei, errespetuari -zentsurik zabalenean-, kirol aniztasunari eta indarkeriaren prebentzioari buruzko kanpaina instituzional iraunkorra abiaraztea.
- Familiei eta klubei zuzendutako material pedagogikoak sortzea, garapen integralak espezializazio goiztiarraren aurrean dituen onurak azaltzeko.
- Familien, adingabeen, begiraleen eta tokiko arduradunen arteko elkarrizketa-espazioak antolatzea, itxaropenak lerrokatzeko eta hezkuntza-erantzunkidetasuna indartzeko.
- Komunikazio-ekintzen eragina urtero ebaluatzea, pertzepzio-aldaketak eta familien parte-hartze mailak neurtuz.

IV. Ondorioak eta etorkizuneko ikuspegia

Ponentzia bera eta haren barruan egin diren 24 agerraldiak aztertu eta gero, Batzar Nagusiek proposatzen dugu administrazioei eta eragileei honako hauek ESKATZEA:

A. Euskal Autonomia Erkidegoko organo erkideei.

Euskadiko ereduaren lidergoa bere gain hartzea.

Eskola-adineko jarduera fisikoaren eta kirolaren dekretu berriaren bidez, kirol-jarduera fisikoan hasteko euskal eredia gidatzea, 2/2023 Legearen oinarrizko zutabeak bermatuz:

- Oinarrizko egitura ikastetxea izatea, bere curriculum ez-formalean integratuz bermatuko duena euskal ikasle guztien garapen integral osasungarria, irisgarria, bidezkoa eta ekitatiboa.
- Askotariko kirol jardueraren eta jarduera fisikoaren bidez kirol bakarreko espezializazio goiztiarraren kalteetatik babestea ikasleak, bizimodu aktiboa eta ez-sedentarioa garatzen duten esperientzia aberasgarriak eta inklusiboak bermatuz.
- Eredua modu koherente eta harmonizatuan garatzea hiru lurralde historikoetan, egun lurralde batetik bestera dauden aldeak saihestuz.

Koordinazio- eta garapen-organo iraunkorra sortzea eta bultzatzea.

Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean elkarlaneko gobernantza handiagoa sustatzea, koordinaziorako organo iraunkor bat sortuz, hezkuntzaren eta jarduera fisikoaren eta kirolaren artean.

Hasierako eta etengabeko prestakuntza-sistema bat ezartzea.

Eskola-adineko jarduera fisikorako eta kirolerako hasierako eta etengabeko prestakuntza-sistema bat ezartzea. Sistema horretan egongo dira:

- Euskadiko kirol-jarduera fisikoko lanbide-heziketako ikastegiak.
- KIROLENE Kirol Iraskuntzen Zentroa.
- Kirolaren Euskal Eskola.
- GFAREN Jarduera Fisikoko eta Kiroletako Zerbitzua.

Sistema hori lurraldeari eta haren eragileei egokitu behar zaie, kirol-begiraleentzako eskaintza publiko eta espezifiko bermatzeko, hezkuntza-irizpideekin (ez soilik irizpide teknikoekin), genero-ikuspegia eta inklusioa lehenetsiz.

B. Gipuzkoako Foru Aldundiari

Ereduaren zirriborro eguneratua egitea.

GFari ESKATZEA egungo eredia eguneratzeko proposamen berri bat egin dezala, eragile guztiek eztabaidatu, aberastu eta parte har dezaten, ponentzia honetan jasotako printzipio eta proposamenen integrazioan oinarrituta, gobernantza argiago, parte-hartzaileago eta lotesleago baten bidez.

Ereduaren eguneratzea bi urteko indarraldia izango duen esku-hartze plan baten bidez egingo da, ponentziaren ondorioetan oinarrituta. Helburu nagusia ikastetxeetako eskola-kirola berregituratzea izango da, bai eta klubetan ematen diren irakaskuntzak eta kirol-modalitateak berregituratzea ere.

Era berean, planak urtero zehaztu beharko ditu, 2026tik aurrera, politika publikoaren eraldaketa eta unibertsaltasuna bermatzeko beharrezkoak diren ekintzak eta baliabideak – ekonomikoak zein giza baliabideak –. Prozesu horretan, ikastetxeen, klubien eta udalen arteko gizarte-itunak sustatuko dira, bai eta udalerrri bakoitzean kirol-hastapenerako plan estrategikoak egitea ere.

Ikastetxeetako jarduera fisikoko eta kiroleko programen finantzaketa bermatzea.

GFari ESKATZEA ikastetxeetako jarduera fisikoko eta kiroleko programak indartu eta zabaltzeko, modu ekitatiboan eta berdintasunez, lurralde osoan (berezi, Jolashezi, Multikirola, EKI Estrategia, EKE Taldeak eta kirol hastapeneko programa), sarbide-ekitatea lehenetsiko duen egiturazko finantzaketa egonkor baten bidez, alde batetik, egoera ahulean dauden familia eta ikasleentzako doakotasunak edo hobariak aztertuz, eta, bestetik, eragile guztien prozesu inklusiboen baterako gobernantzaren bidez.

Tokiko edo eskualdeko egiturak sortzea eta bultzatzea.

GFari eskatzea eskualdeko edo tokiko egiturak sortzea gidatu dezala, errealitate espezifikoetara egokitutako jarduera fisikoko eta kiroleko programak garatzeko, eskualdeko edo tokiko eragile guztien koordinazio aktiboaren bidez, batez ere udalena, ikastetxeena eta klubena.

C. Udalei

Euskal hastapen-eredua udal-politika guztietan txertatzea.

TXERTA DEZATELA beren udal-politiketan eskola-adineko jarduera fisikorako eta kirolerako euskal hastapen-eredua; horrela, lehen etapetan, lehentasuna emango zaie ikastetxeetako programei klubetako programa osagarriei baino, kirol anitzeko ereduaren aldeko apustu irmoa eginez, garapen komunitariorako, ongizaterako eta ekitaterako tresna gisa, eskola-kirolaren eta hezkuntzako, haurtzaroko, inklusioko edo berdintasuneko gainerako udal-proiektuen arteko lotura indartuz.

Tokiko edo eskualdeko egituraketan lider izatea.

Eskola-adineko jarduera fisikoan eta kirolean parte hartzeko eta arreta emateko guneak EGITURATU DITZATELA toki-mailan, GFArekin eta, behar izanez gero, beste udalerrri batzuekin koordinatuta, eragile eta erakundeen artean, batez ere koordinazioari eta antolaketari dagokienez, eta, batez ere, jarduera fisikorako eta kirolerako espazio publikoak eskaintzeari dagokionez.

D. Administrazioaren hiru mailetako erakunde publikoei:

Kanpaina instituzionalak garatzea.

Gizarte-komunikazioko kanpaina instituzionalak EGIN DITZATELA, kirol aniztasunari, joko libreari eta kirol-hastapenaren heziketa-prozesuari balioa emateko, lehiaketaren eta emaitzaren gainetik.

Eskola-adineko jarduera fisikoa eta kirola ikertu eta ebaluatzea.

Akademiarekin eta unibertsitate-erakundeekin eskola-adineko jarduera fisikoaren eta kirolaren politikek duten eraginaren etengabeko ebaluazioa EGIN DEZATELA, kontuak eman ahal izateko.

E. Kirol-federazioei eta -klubei.

Jarduera fisikoko eta kiroleko foru-programaren printzipioak errespetatzea.

SUSTA DEZATELA eskola-kirolaren printzipioekiko errespetua, espazio hezitzaile eta ez-lehiakor gisa, teknifikazio goiztiarreko, trebakuntza goiztiarreko eta eskola-adineko kirol-jarduera fisikoaren merkantilizazioko dinamikak saihestuz. Eskola-kirolean duten esku-hartzea foru-ereduaren printzipio hezitzaile eta ez-lehiakorrekin lerrokatzea.

Begiraleen prestakuntzan laguntzea, ikuspegi pedagogikotik eta ez soilik teknikitik.

Udalerriekin eta Aldundiarekin koordinatzeko mekanismoak EZAR DITZATELA, egutegiak eta baliabideak ez gainjartzeko, beren egutegiak eta praktikak egokituz kaptazio goiztiarra eta espezializazio goiztiarra saihesteko, ezarritako adin eta progresibitate mugak errespetatuz.

Eskola-eskaintzan jarduera minoritarioak sar daitezen laguntzea.

Ikastetxeekin eta tokiko eragileekin koordinazio-protokoloak EZAR DITZATELA, modalitate eta jarduera minoritario eta minorizatuaren inklusioa eta parte-hartzea ahalbidetuko duen lan osagarri (ez ordezko) baterako.

F. Ikastetxei.

Jarduera fisikoko eta kiroleko programak hezkuntza-proiektuan txertatzea.

Jarduera fisikoko eta kiroleko programak beren hezkuntza-proiektuen parte gisa TXERTA DITZATELA, komunikazio- eta koordinazio-egiturak ezarriz, eta parte-hartze eta aintzatespen instituzionaleko prozesuak bultzatuz, curriculumetik kanpoko planora baztertu gabe.

Komunitate osoa kirol-proiektuan txertatzea.

Ikastetxeko kirol-proiektu bat GARA DEZATELA, irakasleak begiraleekin koordinatuz, esku-hartze koherente eta jarraitua egin dezaten; ikasleek jardueren plangintzan eta ebaluazioan parte hartzea sustatuz, eta familiekin eta udalerriekin aktiboki lankidetzan arituz eredia garatzeko.

G. Guraso-elkarteei, familiei eta hezkuntza-komunitateari.

Tokiko edo eskolako erabaki-organoetan parte-hartze aktiboa BULTZA DEZATELA, kirolak haurren ongizateari erantzuten diola bermatzeko, errendimendu-logiketatik edo lehia-presiotik urrun dagoen jarduera fisikoaren eta kirolaren ikuspegia sustatuz, eta haurren prestakuntza integralean eragile erantzunkide gisa duten zeregina indartuz.

H. Kirol-begiraleei

Hezkuntza-eragile gisa duten zeregina BEREN GAIN HAR DEZATELA, nahitaezko eta etengabeko prestakuntzarekin pedagogian, berdintasunean, aniztasunean eta haurren eskubideetan, presio-egoerak, diskriminazioa edo eskubide-urraketarik gertatzen den zainduz eta adi egonez, eta jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko esperientzia aberasgarriak ahalbidetuz.



BOTO PARTIKULARRA

TALDE POPULARRAK BOTO PARTIKULAR BAT AURKEZTEN DIO GIPUZKOAKO KIROL-HASTAPENENKO EREDUA AZTERTZEKO ETA BALORATZEKO PONENTZIAREN TXOSTENARI

Gipuzkoako kirol-hastapeneko eredia aztertze eta baloratzeko Ponentziaren txostenari egindako osoko zuzenketa aho batez onetsi ondoren, Talde Popularrak boto partikular bat aurkezten du, lehendakariak aurkeztutako txostena sar dadin, onetsitako txostenaren ondoren.

Eskaeraren oinarria da gainerako taldeek aurkeztutako eta aho batez onetsitako osoko zuzenketak ez duela funtsezko aldaketarik jasotzen osoko zuzenketa hori aurkeztu zaion jatorrizko lan-dokumentuarekiko.

Beraz, gure boto partikularra txostenean jasota gera dadin eskatzen dugu, bai eta Gipuzkoako kirol-hastapeneko eredia aztertze eta baloratzeko Ponentziaren lehendakariak aurkeztutakoa ere, horixe baita azkenean onetsitako dokumentuaren funtsezko oinarria.

En San Sebastián, a 13 de noviembre de 2025

Mikel Lezama Zubeldia
Portavoz Grupo Popular



Gipuzkoako kirol-hastapenaren ereduari buruzko ponentziaren ondorioen txostena

Eskertzak	2
I. Gipuzkoako eskola-kirola: sarrera eta testuingurua	7
Ponentziaren xedea: multikirolaren egoera aztertzea	7
Gipuzkoako ereduak: aurrekariak eta filosofia.....	9
II. Eskola-kirolaren ereduaren egungo erronkak eta arazoak	12
Ereduaren kalitatearekin eta exekuzioarekin lotutako arazoak	12
Especializazio goiztiarra eta lehiaketa	15
Begiraleen eta entrenatzaileen prestakuntza eta kualifikazioa.....	22
Eragileen inplikazioa eta koordinazioa.....	26
Finantzaketa eta sarbide unibertsala	32
III. Eskola-kirolaren eredu berriturako proposamenak eta estrategiak	35
Eragileen arteko integrazioa eta lankidetzak	35
Kirol-aniztasuna eta dibertsifikazioa sustatzea	39
Prestakuntza eta profesionalizazioa	43
Lehiakortasun goiztiarra murriztea eta arreta gozamenean jartzea	47
Lege-esparrua eta adingabearen eskubideak	49
Komunikazioa eta kontzientziaketa	53
IV. Ondorioak eta etorkizuneko ikuspegia	56

1 Eskertzak

- 2 Gipuzkoako Batzar Nagusietako Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Batzordeak eskerrak eman nahi dizkie ponentzia honetan parte hartu duten hizlari guztiei. Haien ekarpen baliotsua, esperientzia eta dedikazioa funtsezkoak izan dira eskola-kirolak gure lurraldean duen egungo egoerari buruzko ezagutza aberasteko, bai eta aurre egin beharreko erronka konplexuei heldu ahal izateko ere. Askotariko ikuspegiak azaldu dira, batzuetan osagarriak eta beste batzuetan dibergenteak, eta hori funtsezkoa izan da haur guztientzako onuragarria izango den eskola-kirolaren eredu bat hobetzen eta finkatzen saiatzeko.
- 3 Jarraian, parte-hartzaile bakoitzaren funtsezko ekarpenak:
- 4
 - **Xabier Castaño (Gipuzkoako Errugbi Federazioa):** Bere testigantza funtsezkoa izan da **kirol minoritarioek** gaur egungo mugen aurrean dituzten **erronka espezifikoak** ulertzeko. "**Berdintasunaren**" alde baino, "**ekitatearen**" alde egin du, aukerak kirol eta talde bakoitzaren beharretara egokitzeko; era berean, adierazi du kalitatezko eskaintza erakargarri bat behar dela konpromisoa sustatzeko.
- 5
 - **Eduardo Gonzalez (Kirol Management):** **Kirol-kudeaketaren** ikuspegitik azaldutakoa aintzat hartzen dugu, bai eta **egungo araudiak dituen kontraesanen** inguruan egindako azterketa ere. Baliabideak hobetzeko eta bideratzeko bide zehatzak eskaini ditu, hala nola **eskola-kirola hezkuntza-sisteman integratzeko** proposamena, etorkizunerako agertoki ideal gisa, eta "**2+1**" saioko eredu iragankor bat (**bi saio kirol anitzekoak eta saio bat klubean**), **ikastetxeek osatutako tokiko kudeaketa-egiturekin**.
- 6
 - **Imanol Arcelus eta laguntzaileak (Kirola Bai elkartea):** Eragindako familiak ordezkatu dituzte, eta haien ekarpena funtsezkoa izan da. Mugarik gabeko eskola-kirolaren ereduaren alde egin dute, eta nabarmendu dute **lehia onuragarria dela**, baldin eta ondo kudeatzen bada, eta **egungo murrizketek ez dutela oinarri zientifikorik**. **Klubetako entrenamendu-egunak gehitzea** eskatu dute, eta kirol guztiak egun berean izateko betebeharra ezabatzea, baita ezarritako zehapenak bertan behera uztea ere.
- 7
 - **Gurutze Fernandez (MK Donostia):** **Kirol anitzeko eredu sendo eta arrakastatsu** bat aurkeztu du, **aniztasunean, talde egonkor eta mistoetan, genero-inklusioan** eta emaitzaren ginetik dagoen **hezkuntza- eta**

partaidetza-ikuspegian oinarritua. **Begiraleen prestakuntza nabarmendu du, programaren motor gisa**, eta klubekin eta federazioekin lankidetzan aritzearen garrantzia, hurren garapen integralerako.

- 8 • **María Ajuria (Farapi Coop.): Antropologian, berdintasunean eta ikuspegi feministan** oinarritutako ikuspegia funtsezkoa izan da eskola-kirolak **bizikidetzaren, ekitatearen eta inklusioaren balioak nola sustatu** aztertzeko, bai eta **genero-desberdintasunik erreproduzitzen ez duten** kirol-espazioak nola eraiki aztertzeko ere. Neska-mutilak protagonista egingo dituzten metodologia parte-hartzaileak behar direla azpimarratu du.
- 9 • **Asier Bueno eta Arrate Ramírez:** Haien lekukotza, eragindako familia gisa, **ezinbestekoa** izan da seme-alaben kirol jardunean hautematen dituzten **mugak eta debekuak** ikusarazteko, hala nola lurralde-mugak edo jardunaldi eta entrenamendu kopuruarekin lotutakoak. **Familiek aukeratzeko askatasunik ez dutelako** eta ereduak kontraesanak dituelako kezka azaldu dute, eta adierazi dute mugek eragotzi egiten dutela OMEren jarduera fisikoari buruzko gomendioak eta haurraren eskubideak betetzea. Muga horiek direla-eta **klubei eta familiei isunak jartzeari buruz** egin duten salaketa puntu kritikoa izan da.
- 10 • **Uxue Fernández (EHU - Kirol eta Gorputz Hezkuntza Saila):** Jarduera fisikoaren bidez **ongizatea, jasangarritasuna eta inklusioa** lortzeko moduari buruzko ikuspegi integrala eman du. Azpimarratu du **arrakasta kolektiboak ez duela justifikatu behar eskubide indibidualen urraketa**, eta nabarmendu du erabaki guztietan **hurrei entzun** behar zaiela.
- 11 • **Luki Iriarte (Real Sociedad - Zubietza):** Eskerrak eman nahi dizkiogu **Realaren harrobiak izandako emaitzei buruz** ekarri dituen datuengatik; izan ere, datu horiek indartu egiten dute kirol-aniztasunak eta goizegi ez espezializatzeak **garapen osoagoa eta lesio gutxiagorekin** izaten laguntzen dutela dioen ideia. Baimen berezia duen alebin mailako jokalaria baten kasu berezia aipatu du, eta horrek eztabaida piztu du **adin goiztiarretan merkantilizatzeari** eta arauen aplikazioari buruz.
- 12 • **Dan Lertxundi (Gipuzkoako Foru Aldundiko kiroletako teknikari ohia):** Eskerrak eman nahi dizkiogu eskola-kirolaren Gipuzkoako ereduaren diseinuari buruz eman duen **ikuspegi historikoagatik**, eta egun sortutako egoeren inguruan azaldu duen kezkatik. **Eskola-kirolaren sistemak izan duen "desbirtuazioari"** buruz egin duen azterketa oso argigarria izan da,

modalitateen gehiegizko "disgregazioagatik", sakontasun nahikorik gabe, eta **eskola-kirolaren eta klubaren arteko "bloke-politikagatik"**. Era berean, **begirale askok kualifikazio txikia** izatearen arazoa aipatu du, eta baita lehia saihestearena ere, nahiz eta gazte gehienek lehiatu nahi izan.

